ebpn euskara ezagutu entzun erabili

ORDIZIAKO UDALA

Aupa zuek!

Zerbait desiratuz irudipenak eratzen ditugunean amets egiten dugula esan ohi da.
Ba nik aitortuko dizuet amets egitea munduan dagoen gauzarik ederrenetakoa dela iruditzen zaidala.

Zuen adinean neukan altxorrik handienetakoa, handiena ez bazen, nuen amets egiteko gaitasuna zen. Zer egin aurrerantzean? Nora joan? Non bizi? Norekin egon? Zer sortu? Nola? Etorkizuna bere zabalera eta handitasun osoz, aurrez aurre zegoen eta horrenbeste modu ezberdin zeuden zetorrenari aurre egiteko!

Aurretik duzuen zeregina ederra da: gazte izan behar duzue, dibertitu egingo zarete, maitemindu egingo zarete, maite egingo zaituztete, gauza asko ikasiko duzue eta pixkanaka, zuen buruaz harro zaudeten pertsona helduak izatera iritsiko zarete.

Bide horretan aukerak egin behar izan ditugu guztiok eta aukeren aurrean sarritan zalantza egin dugu gauza bat edo bestearen artean. Baina beti zerbait ikasten da hurrengorako, bai asmatzen dugunean eta bai hanka sartzen dugunean ere.

Norbere saskia zabalik dago eta aurrera egin ahala; bertara gauzak gehitzen joatea da kontua, aberastea egunetik egunera. Esperientziek aberastuko gaituzte, pertsona ezberdinekin harremanak izatean aberastuko gara, bidaiatu eta leku berriak ezagutzeak aberastuko gaitu. Datorrenak aurretik daukagunari gehitzeko balio du eta inoiz ez kentzeko.

Beraz, nik amets egiten jarraituko dut. Hizkuntza askotan egin dezaket amets gainera, baina nire ametsak euskaraz datoz. Nire buruan bueltaka dauden ametsak euskaraz azaltzen zaizkit. Nire bidea euskaraz egiten nabil eta ez da aukera bat, euskaraz egitean ezeri ez baitiot uko egiten. Eta ate guztiak zabalik ditut!

Ilaski Serrano
"mihi-luze"ko aurkezlea